

Beneditarren artxiboa Lazkaon geldituko da, eraikin berrian

Foru Aldundiak eta Lazkaoko Udalak finantzatuko dituzte eraikin berriaren lanak

ARKAITZ APALATEGI. Lazkao.

Lazkaoko fraide beneditarrek nahi zuten moduan, euskal gaiei buruzko artxiboa herrian bertan geldituko da. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Lazkaoko Udalarekin lortutako akordioari esker, artxiboa eta liburutegia hartuko dituen eraikin berri bat egingo dute. Atzo sinatu zuten hitzarmena alde guztiek, beneditarren komentuan bertan.

Komentuaren ondoan eraikiko dute eraikina. Bi solairuko eraikina izango da, eta 325 metro koadro izango ditu. Bi eremu nagusitan banatuko da: batetik, jendearentzako eremu bat izango du, harrera, irakurketa eta ikerketa gelek; bestetik, artxiboa egongo da, artxibozainen bulegoak, instalazioak, agiriak eta liburuen biltegia izango dituen.

Lortutako hitzarmenarekin gustura agertu zen Rufino Mujika, Lazkaoko beneditarren priorea. Gure nahia artxiboa Gipuzkoan egotea izan da beti, eta ahal balitz, Lazkaon bertan. Bestalde, Aita Juan Joxek urte hauetan guztietan egindako lanak kokaleku egoki bat izan zezala nahi genuen. Azkenean bi helburuok errealitate bihurtzeko bidean daude. Mujikak gaineratu zuen artxiboak eraikin modernoak eta egokia izango duela, komentuan bertan.

Iritzi bera agertu zuen Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako Ahaldu Nagusiak. Haren hitzetan, artxibo hau urte askotako lanaren ondorioa da. Beneditarrek material hau, bildu, sailkatu eta zaindu ondoren, herriari itzuliko diote orain, eta hori opari handia da herritarrentzat.

Artxiboa eta liburutegia izango dituen eraikina egiteko, 720.000 euro erabiliko dituzte. Kopuru horren zatirik handiena, 600.000 eurokoa, Aldundiak jarriko du. Gainontzeko 120.000 euroak, berriz, Lazkaoko Udalak hartuko ditu bere gain. Felix Urkola alkateak elkarlan akordio honen atzetik dagoen lana azpimarratu zuen. Gainera, Lazkaoko herriaren izenean eskerrak eman zizkien fraide beneditarrei eta, bereziki, Joan Joxe Agirre artxibozainari.

LEKUA ETA DIRUA

Lazkaoko artxiboak bere izaera norbait zor badio, aita Joan Joxe Agirreri zor dio. Atzoko ekitaldian parte hartu zuten guztiek nabarmendu zuten haren lana. Agirrek berak ere, lan honi ekin zioneko garaia gogoratu zuen. Bando bat egin nuen, artxibo bat osatzen ari ginela eta euskal gaiekin lotutako argitalpenak bildu nahi genituela esanez. Erbestean zegoen

jendearen laguntzaz, Euskal Etxeetan zabaldu genuen bando hau, eta erantzuna izugarritzkoa izan zen. Guztira 5.600 aldizkari ditugu orain artxiboan. Hauetako batzuk dira Irrintzi edota ANV alderdiak ateratzen zuen Tierra Vasca.

Euskal gaiei buruzko argitalpenetan artxiborik osoenetakoa da Lazkaokoa. Euskal aldizkari eta egunkarietan artxiborik zabalena, eta karteletan ere material ugari dauka. Guztira, 16.000tik gora dira afixak, alderdi politiko, sindikatu, gizarte mugimendu edo mugimendu kulturalenak.

Orain, ordea, artxiboak lekua eta dirua behar ditu aurrera egiteko. Hala, laguntza hau eskertu nahi izan zuen, baina oraindik ere lan handia egiteko dagoela gogorarazi zuen.